

Ebazpena: R006/2025
Espedientea: E065/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko otsailaren 26a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

AB SERVICIOS SELECTA ESPAÑA S.L.U.-k (aurrerantzean AB) Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren (ZAEA) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) aurrean gatazka aurkeztu du, zehazteko norena den 2020ko ekitaldiko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (aurrerantzean I+G+B) jarduerak egiteagatik Sozietateen gaineko Zergaren (aurrerantzean SZ) kenkaria ordaintzeko eskumena, kuota nahikoa ez denean. Gatazka hori 65/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

1.- ABk egoitza fiskala lurralde erkidean (Madrilen) du, eta 2020ko ekitaldian hainbat zerga-administrazioen aurrean tributatu zuen SZgatik, lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren arabera, eta, gatazka honi dagokionez, ZAEAREN eta GFAREN aurrean.

2.- 2021eko uztailaren 19an, ABk 2020ko ekitaldiko SZren autolikidazioa aurkeztu zuen GFAn, 1.581,61 euro itzultzeko emaitzarekin. Likidazioan 1.579,89 euroko zenbatekoa jasotzen zen, sozietateak gauzatutako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (I+G+B) jarduerengatik kenkariaren zenbateko baliokidea ordaintzeko, lurralde erkidean indarra duen Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2017 Legearen 39.2 artikuluan jaso bezala.

3.- 2021eko irailaren 14an, GFAk ofizioz itzultzeko erabakia hartu zuen, ABk SZn eskatutako zenbatekoarekin, eta hilabete zein urte bereko 20an jakinarazi zitzaion, eta aipatutako itzulketa 2021eko irailaren 21ean ordaindu zion zergapekoari.

4.- Hala ere, autolikidazioak berrikusteko prozedura hasi ondoren, GFAk 2021eko abenduaren 20an likidazio-proposamena jakinarazi zion ABri, 1.579,89 euroko zerga-kuotaren kontzeptuan sartu beharreko emaitzarekin, administrazio horrek ulertzen baitzuen I+G+B kenkariaren monetizazioak dirulaguntza-izaera juridikoa duela, eta ez zerga-onurarena, eta, beraz, ez litzateke sartuko Ekonomia Itunaren eskumen-banaketan; hartara, dirulaguntza ematen duen administrazioari legokioke osorik itzultzea, kasu honetan ZAEARI.

5.- Bestalde, GFAk ZAEARI jakinarazi zion ABk eskatutako zenbatekoa ordaintzeko eskumenik ezaren adierazpen formalak, I+G+B-ko kenkariaren monetizazioaren ordainketaren ondoriozkoa, hura ZAEARI zegokiola ulertuta.

ZAEA, halaber, isilbidez inhibituta zen, ez baitzion jaramonik egin GFAk bidalitako eskumenik ezaren adierazpenari hilabeteko epean, alegia, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.2 artikulua horretarako ematen duen epean.

2022ko apirilaren 4an, gatazka aurkeztu zuen GFAk Arbitraje Batzordean, zeina 28/2022 espediente-zenbakiarekin izapidetu baitzen.

6.- Aurrekoa gorabehera, 2022ko uztailaren 28an, ABk, halaber, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean, eskatuz, alde batetik, GFAk emandako behin-behineko likidazio-proposamena bertan behera uzteko eta, bestetik, Arbitraje Batzordeak erabaki zezala inplikaturako bi administrazioetatik zeinek ordaindu behar zuen I+G+B jarduerengatik kenkariaren zenbateko baliokidea, zeina Arbitraje Batzorde honetan izapidetu baita 65/2022 espediente-zenbakiarekin, prozedura arruntari jarraituz.

7.- 2022ko urriaren 20an eman zuen Arbitraje Batzordeak 28/2022 gatazkari buruzko 106/2022 ebazpena, eta bertan erabaki zuen aldarrikatzea GFAk eskumena zuela 2020. urteari dagokion I+G+B jarduerengatiko kenkariaren monetizazioaren bere proportzioa itzultzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna (aurrerantzean, Ekonomia Ituna) onetsi duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu horrek eginkizun hauek ezartzen dizkio batzorde horri:

“a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.”

2.- Prozeduraren xedea gerora galtzea.

Gatazka honek 28/2022 gatazkaren objektu bera du. Gatazka hartan, Arbitraje Batzordeak 106/2022 Ebazpena eman zuen, 2022ko urriaren 20an, zergapeko, zerga eta ekitaldi berengatik. Ebazpenak adierazi zuen GFAk eskumena zuela ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (I+G+B) jarduerengatiko

kenkaria, 2020ko ekitaldiko SZren kuota nahikoa ez izateagatik, berari zegokion proportzioan ordaintzeko.

106/2022 Ebazpenaren aurka errekurtsua jarri zuen GFAk Auzitegi Gorenean, eta prozedura hura amaitutzat eman zen GFAk atzera eginda, Auzitegi Gorenaren 2023ko ekainaren 16ko Dekretuan jaso zen bezala. Irmoa da, beraz, 106/2022 Ebazpena.

Horrenbestez, auzi-premisa ebatzia denez, eta ez dagoenez espedientean jasota GFAk AB enpresari dagokion behin-behineko likidazioa jakinarazi dionik egindako likidazio-proposamenari alegazioak egiteko epea amaitu ondoren, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- 65/2022 gatazka besterik gabe artxibatuta deklaratzeari, haren xedea gerora galtzeagatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikularen babesean eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren 8. artikuluari jarraikiz.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta AB SERVICIOS SELECTA ESPAÑA, S.L.U.-ri jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.